



MENDINET

Mendinet Tokiko Ekintza Taldea

Granja Modelo, z/g

Arkaute

Vitoria-Gasteiz

(Araba)

Data: Arkauten, 2023ko urriaren 31

Mendinetek landa inguruko garapen ekonomikoa bultzatzeko Leader laguntzak eskatzeko epea zabaldu du

<https://www.mendinet.org/eu/leader-laguntzak/>

Mendinet, Euskadiko Tokiko Ekintza Taldeak, **LEADER** eremuko landa-udalerrien sustapen, garapen eta dibertsifikazio ekonomikorako **laguntzak** eskatzeko **deialdia** zabaldu du **2023ko urriaren 31an**. Deialdi hau osatzen duten laguntzak %80a, FEADER (Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak), eta %20a EAEn Aurrekontu Orokorrek batera finantzatuko dituzte, **Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburuak** 2023ko irailaren 19an emandako Aginduak jasotzen duen bezala.

Deialdi honen helburua da Leader ikuspuntuko Partaidetzazko Toki Garapeneko Estrategiaren xedeak betetzera bideratutako laguntzen deialdia egitea. Partaidetzazko Toki Garapeneko **Estrategia Landaren eta Itsasertzaren Garapena eta Europar Politikako zuzendariak** 2023ko abuztuaren 25ean hartutako Ebazpenaz onartu zen.

MENDINET Tokiko Ekintza Taldeak kudeatzen ditu LEADER laguntzak Euskadin. MENDINETEK 20 urte baino gehiago daramatza laguntzak hauek kudeatzen. Europako LEADER programaren xedea da landa-eremuen garapen ekonomikoa ahalbidetzea, enplegu-aukerak sustatzea eta **biztanleen bizi-kalitatea** hobetuko duten zerbitzuak bermatzea. Horren guztiaren **azken helburua da landa-populazioari eustea eta hura zabaltzea**.

Laguntzak honako onuradunek eska dezakete: **persona fisiko edo juridikoak, publikoak edo pribatuak**, baldin eta, LEADER eremuko udalerakunde horietan aurreikusitako proiektuak eta jarduerak egin baditzakete.

Lau neurri nagusi eta berritasun bat:

1. **Ekintzailtzarako eta barne-ekintzailtzarako neurria**, enpresa berriak sortu eta hasieran abian jartzeko eta proiektu ekintzaileak garatzeko.
2. **Nekazaritzakoak ez diren enpresetan eta nekazaritza-dibertsifikazioan inbertsioak egiten laguntzeko neurria**, mikroenpresak, enpresa txikiak eta enpresa ertainak sortzen eta garatzen laguntzeko, eta nekazaritzakoak ez diren jardueretan inbertsioak egiten dituzten ustategietan dibertsifikazioari laguntzeko, nekazaritzako produktuen eta nekazaritzako elikagaiak ustategitik kanpo merkaturatzea barne.
3. **Besteren kontura kontratatzeko neurria**, langileak besteren kontura kontratatzeko, landa-populazioari eusten edo hura zabaltzen laguntzen duten lanpostu berriak sortze aldera.
4. **Guneak gaitzeko neurria**, hirugarren pertsonentzako ekonomia-jarduerarako guneak sortzeko edo egokitzeko. Guneek/lokalek hainbat erabilera izan ditzakete (*coworking*-a, bulegoak, ostalaritza, etab.). Laguntza-lerro hau **berria da**. Bere helburua, Euskadin landa-ingurunean, ekintzailtza eta enpleguaren sorrera sustatzea. Soilik EAEko Toki-Erakundeek eska dezakete laugarren laguntza lerro hau.

Non eta noiz egin eskaera

LEADER programarako eskaerak egiteko **epea hamabost egun naturalekoa** izango da aurten; **urriak 31tik azaroaren 14ra arte**. **Eskatzaile guztiek kanal elektronikoa**ren bidez izapidetu beharko dituzte eskaerak www.euskadi.eus/Nirekarpeta gunean. Interesdunek izapidea burutzeko **sinadura elektronikoa** burutzeko ziurtagiri elektronikoa beharko dute.

Euskadiko Landa Garapenerako Elkartek euren eskualdeetan LEADER dirulaguntzari buruzko **informazioa eta aholkularitza** zuzena eskaintzen dute <https://www.mendinet.org/eu/entitate-elkartuak/>. Bestalde, **MENDINETek** informazio orokorra eskaintzen du baita ere <https://www.mendinet.org/eu/leader-laguntzak/>

Zuzkidura ekonomikoa eta zenbatekoak:

LEADER 2023 programak **5.182.500** euroko zuzkidura ekonomikoa du eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak (LGENF).

Aurreko deialdian, programa horren bidez, **284 proiekturi** lagundu zitzairen, **15,6 milioi** euro baino gehiagoko aurrekontuarekin. **2015-2020** Landa Garapenerako Programaren aldi osoan, **1.117** proiekturi lagundu zitzairen, ia **52 milioi euroko** zuzkidurarekin.

MENDINET ezagutu:

MENDINET Tokiko Ekintza Taldea da Euskadin LEADER laguntzak kudeatzen dituen erakundea. Euskadiko **18 Landa Garapenerako Elkartek** (LGE) eta **HAZI Fundazioak** osatzen dute **MENDINET**. MENDINETek 20 urte daramatza LEADER laguntzak kudeatzen.

LEADER 2023, datu interesgarri batzuk:

- <https://www.mendinet.org/eu/leader-laguntzak/>
- 2023an eskaera aurkezteko **epea 15 egun naturalak: Urriak 31etik, azaroaren 14ra arte**
- Laguntzak **5,1 milioi euro** eskaintzen ditu Euskadiko landa-eremuen sustapen eta garapen ekonomikorako, **biztanleen bizi-kalitate hobetzen dela bermatzeko**
- Laguntza hori NPEPE 2023-2027 programak biltzen dituen eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak (**LGENTF**) batera finantzatzen dituen landa garapenerako **18 esku-hartzeen** barruan dago
- Deialdi honek **laguntza-neurri berri bat** jasotzen du ekonomia-jardueretarako guneak gaitzeko

Prentsarekin harremanetarako kontaktua: (MENDINET)

Izena: Angel Rocha

Posta elektronikoa: arocha@hazi.eus

Telefono zenbakia: 607521542

www.mendinet.org

mendinet@mendinet.org

Telefono zenbakia: 945 410 309